

BERMEO / Umeek euren buruez duten irudia

Ikasleek euren buruak irudikatu dituzte eta erakusketa apirilaren 3ra arte izango da ikusgai udal liburutegian.

N. Salazar

Luis Eleizalde ikastolako, San Frantzisko Herri Eskolako eta Karmeldar ikastetxeetako ikasleek euren buruak irudikatu dituzte eta marrazki horiek Joxe Miel Barandiaran udal liburutegian jarri dituzte ikusgai.

Erakusketa ikusteko sarrera libre da herritar guztientzat.

Irudi horiek ikusteko aukera apirilaren 3ra arte izango dela jakinarazi dute liburutegiko arduradunek.

Ikasleentzako jarduerak

Bestalde, astelehenean hasi eta datorren asteko eguenera arte, ikasleentzako jarduerak antolatu dituzte bertan. Hain zuzen, erakusketa bera ikusteko eta film baten emanaldian parte hartzeko aukera izaten ari dira ikastolako eta ikastetxeetako ikasleak.

Gaur goizean, lehenengo, Eleizalde ikastolako Lehen Hezkuntzako bigarren mailako hamazazpi haur joango dira liburutegira eta ondoren, Karmeldar ikastetxeko maila bereko 24 haur.